Zehaztapen Teknikoen Plegua, Zugaztel M.P., S.A.ren digitalizazio-ekipamendu primarioa mantentzeko zerbitzuarena

2019/10/03

ÍNDICE

1. XEDEA 1

2. ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK 1

3. BALDINTZA BEREZIAK 1

3.1 Zigorrak 1

3.2 Segurtasun eta konfidentzialtasun baldintzak 3

3.3 Jabetza intelektuala 3

1. XEDEA

Plegu honen xedea da zehaztapen teknikoak definitzea, Zugaztel M.P, S.A.ren digitalizazio-ekipamendu primarioa mantentzeko zerbitzuak emateko.

2. ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK

Zugaztelen digitalizazio-ekipamendu primarioa honako elementu honek osatzen du:

- Kodak I5200 eskanerra.

Mantentze-zerbitzuek honako hau eskatzen dute:

PREBENTZIOZKO MANTENTZEA

- Prebentziozko mantentzearen URTEKO BERRIKUSPEN BI barne.
- Prebentziozko bisitari lotutako tresna, ordezko pieza, ordu eta desplazamendu guztiak sartuta daude zerbitzua emateko eskainiko den prezioan.
- Prebentziozko mantentzea egingo duen teknikaria eskanerraren fabrikatzailearen zerbitzu tekniko ofizialekoa izan beharko da.
- Bisita lan ordutegian egingo da: astelehenetik ostegunera 08:30etik 17:00etara edo ostiraletan 10:00etatik 14:00etara.
- Berrikuspena Zugazteleko arduradunekin koordinatuta egingo da. Ezarritako egunak eta orduak ez dituzte oztopatuko Zugaztelen zerbitzuak.
- Konponketak, kalibrazioak, doitzeak edo ekipoen beste edozein egokitze fabrikatzailearen sotwarearekin egingo dira. Era gehigarrian, ordezko piezak originalak eta modelurako espezifikoak izango dira.
- Proposamenean sartuko da berrikusi beharreko puntuen xehetasuna, baita erabilitako bitartekoak eta jarraitu beharreko protokoloa ere.
- Txosten tekniko xehatua aurkeztuko da egindako berrikuspen bakoitzeko. Honako hauek adieraziko dira: egindako neurketak, aurkitutako akatsak eta egoki deritzen oharrak.

ON-SITE SERVICE

Matxura izanez gero, eskanerraren fabrikatzailearen zerbitzu tekniko ofizialeko teknikariaren euskarri presentziala eman behar da Zugaztelek adierazitako instalazioetan. On site arreta erantzuteko denbora, gehienez, 8 lanordukoa izango da, Zugazteleko arduradunek matxuraren berri ematen dutenetik zenbatzen hasita.

Ordezko pieza guztiak originalak eta modeluarentzako espezifikoak izango dira.

Zugaztelen instalazioetara joaten diren teknikarien eskulana, desplazamenduak, dietak eta beste kontzeptu batzuk prezioan sartuta egongo dira.

3. BALDINTZA BEREZIAK

Hauek dira lanei lotutako baldintza bereziak:

3.1 Zigorrak

Ez betetzea gauzatzen den hilabeteko fakturazioan adieraziko dira zigorrak. Urteko fakturazio guztiaren hilabeteko zati proportzionalean adieraziko dira.

- Soporte On-site: Euskarria in situ ez izatea ekipamenduan gorabeherarik izanez gero:

Erantzun-denboratik kanpo (gehienez, 8h) Zugaztelek gorabehera antzematen duenetik igarotzen den ordu bakoitzeko, dagokion fakturazioaren % 1 zigortuko da gorabehera konpontzeko euskarriagatik, euskarria in situ ez izateagatik atzeratzen den ordu bakoitzeko.

3.1.1 Proiektua antolatzea eta gainbegiratzea

Zugaztelek solaskide bat izendatuko du eginiko lana ikuskatzeko eta azken emaitza ontzat emateko. Gainera, beharrezkotzat jotzen dituen jarraibideak helaraziko dizkio enpresa adjudikaziodunari, zerbitzua behar bezala eman dezan.

Enpresa adjudikaziodunak pertsona bat izendatuko du koordinatzaile, eta epeak eta lanen kalitatea betetzeko jarraipen- eta kontrol-lanak koordinatzeko ardura izango du. Bestalde, Zugaztelekiko solaskide lanak egingo ditu, bai laneko jarraibideen azalpen teknikoak jasotzeko, bai jarraipen-txostenak idazteko eta Zugaztelek eskaturiko bileretan parte hartzeko.

3.1.2 Jarraipen eta kontrol mekanismoak

Digitalizazio-ekipamendu primarioaren prebentziozko mantentzeari lotutako lanak hasi baino lehen (Kodak i5200 eskanerra), kontrol-prozedura guztiak ezarri beharko dira era jarraituan egiaztatzeko zehaztutako helburuak bete direla, hala epeetan nola azken kalitatean.

Hauek dira mekanismoetako batzuk:

- Jarraipen-bilerak: ohiko bilerak egingo dira prebentziozko mantentzeen aurretik edo ondoren edo ez ohiko bilerak gertatu diren gorabehera edo interbentzioei buruz. Bilera horien helburua da planifikatutako eginkizunen betetze maila aztertzea, gorabeheren arrazoiak eta egindako interbentzioa aztertzea, edo digitalizazio-ekipamendu primarioaren mantentze zerbitzuari lotutako beste edozein helburu (Kodak i5200 eskanerra).
- Prebentziozko mantentzeen edo egindako ez ohiko jarduketen egoera eta aurrerapen txostenak. Horien bidez jakinaraziko dira nola doazen lanak, zer nolako helburuak lortu diren, zer nolako gorabeherak izan diren, e.a.
- Ziurtapen partzialak, behar izanez gero.
- Eginkizunen kontrol-orriak, behar izanez gero.
- Proiektuak kudeatzeko beste edozein dokumentu, Zugaztelek hala eskatuta, proiektua kontrolatzeko mekanismo gisa erabil badaiteke.

Uneoro, adjudikazioaren aurretik edo ondoren eta lanak egin bitartean, Zugaztelek ahalmena du edozein agiri osagarri eskatzeko, zertarako eta enpresa lizitatzaileak bai hari buruz bai langileei buruz emandako datuak egiaztatzeko

Halaber, enpresa adjudikaziodunak izendatutako teknikariak aldatu egin daitezke Zugaztelek hala eskatzen badu, adjudikazioa egiteko baldintzak bete ez direla antzemanez gero. Horrelakoetan, enpresa adjudikaziodunak beste pertsona batzuk proposatu beharko ditu, hasieran proposatutakoen kategoria eta kualifikazio bera dutenak. Inguruabar horrek ez du aldatuko, inola ere, eskainitako prezioa..

3.1.3 Lanak onartzea

Behin prebentziozko mantentze lanak edo gorabeherak konpontzeko ez ohiko jarduketak bukatuta, jarduketa guztiek onartzeko probak izango dituzte, egindako lanak ziurtatuko dituztenak.

Zugaztelek definituko ditu, dagozkion proben hasieran, zehaztapen hauek betetzen direla egiaztatzeko.

Prebentziozko mantentzearen ondoren edo ez ohiko jarduketei dagokienez, adjudikaziodunak txostena emango dio Zugazteli. Txostenean honako hauek jasoko dira: egindako jarduketen lan-plana, lan-planetik abiatuta eskatutako helburuak lortu direla ziurtatzen duten proben ebidentziak, eta, baita ere, gorabehera aztertzearen ondorioz aholkatzen diren hobekuntza-ekintzak.

3.2 Segurtasun eta konfidentzialtasun baldintzak

Zugaztelek, behar izanez gero, bere sistema informatikoetan sartzen utziko du, aldez aurretik ezarritako prozedura eta baimenekin bat, eta kontratu honek zehaztutako zerbitzuak burutzeko beharrezkoa den informazioa eta dokumentazioa emango dio enpresa adjudikaziodunari. Enpresa adjudikaziodunak konpromisoa hartuko du informazio hori Oinarri Teknikoen Pleguetako helburuetarako baino ez erabiltzeko; halaber, konpromisoa hartuko du informazio hori ez ateratzeko, ez lagatzeko, ez argitaratu edo saltzeko, osorik edo partzialki, ez euskarri informatikoan ez paperean, eta itzuli egin beharko ditu jasotako informazio-euskarriak, baita ekipo informatikoetatik deskargatu ere (baldin badaude), behin lana bukatuta.

Adjudikaziodunak segurtasun arloko konpromisoak bere gain hartu eta arauak bete beharko ditu lan hau dela-eta erabiliko dituen informazio-sistemei dagokienez, indarrean dagoen legeriarekin bat. Hala enpresa nola lan-taldea berariaz derrigortuta daude erabateko konfidentzialtasuna eta zuhurtzia gordetzera kontratua betetzean ezagutu dezaketen edozein daturi buruz, bereziki datu pertsonalak badira. Ezingo ditu kopiatu, ez Oinarri Teknikoen Pleguetako helburuetatik kanpo erabili, ezta gordetzeko beste batzuei laga ere.

Ondore horietarako, kontu handiz jokatu beharko da datuak erabiltzean. Arlo honetan egindako arau-hausteak larriak izango dira eta kontratua suntsitzeko arrazoi, egon daitezkeen erantzukizun penalen edo bestelakoen kalterik gabe.

Klausula bereziak bete beharko ditu adjudikaziodunak, eta, bereziki, Klausula Berezien Pleguko “11.3. Datu pertsonalak babestea” eta “11.5. Informazioaren segurtasuna” atalak.

3.3 Jabetza intelektuala

Enpresa adjudikaziodunak honako klausula hauek onartzeko konpromisoa hartzen du:

- Lanarekin zerikusia duten jabetza intelektualaren eskubideak Zugaztelenak dira. Horren ondorioz sortutako edozein produktu edo azpiproduktu dagokion eremutik kanpo ezingo da beste helburu batzuetarako erabili, Zugaztelek berariaz idatziz baimentzen ez badu. Enpresa lizitatzaileak Zugazteli helaraziko dizkio artxibo guztien iturri guztiak, baita programatzeko erabilitako baliabide guztiak ere.
- Lana egiten zen bitartean sortutako dokumentazioa Zugaztelen jabetza esklusibokoa da, eta enpresa adjudikaziodunak ezingo du jaso, ez eta kopia bat lortu edo hirugarrengoei eman ere, Zugaztelen idatzizko baimen zehatzik gabe.

Hala badagokio, Zugaztelek baimen hori emango lioke, enpresak zertarako behar duen berariaz adieraziz eskaera formala egin ondoren. Zugaztelek berariaz ematen du baimena lan honen emaitzak erreferentzia gisa eta Zugaztelek berak egingo dituen lanen oinarri gisa erabiltzeko.

- Enpresa adjudikaziodunak Zugaztelek eskuratutako informazioaren konfidentzialtasuna bermatu beharko du eta, datu pertsonalei dagokienez, arlo horretako indarreko legeria bete beharko du. Lanak egiten ari diren bitartean ezagut ditzaketen datu, informazio eta dokumentu guztiei buruz, enpresako kolaboratzaile guztiek erabateko lanbide sekretua mantentzeko konpromisoa hartzen dute, irudikapen modua (ahoz edo idatziz) alde batera utzita. Informazio horiek esklusiboki kolaboratzaileek lortuko dituzte, ezinbestez aipatzen ari garen eremuaren barruan atxikitako zereginak garatzeko behar badituzte. Guztiei ohartaraziko zaie lortuko duten informazioa zorrozki konfidentzial eta zuhurra dela.

Era berean, enpresa adjudikaziodunak Zugazteli berehala jakinarazi beharko dio informazioaren segurtasun eta babes sistemaren akats edo ihesekin zerikusia duen edozein susmori buruz, hori proiektua garatzen ari den bitartean hautematen bada.

Bizkaia zugaztel

Kanariar Uharteak, 21, 3.solairua

48015 BILBO (Bizkaia)

Tel - Telf: (+34) 94 656 7717

Faxa - Fax: (+34) 94 401 2348

erosketakzugaztel@bizkaia.eus

http://zugaztel.bizkaia.eus

SI-0002/ 2013

ER-1141 / 2011

- Herritarrei arreta eskaintzeko kanal anitzeko azpiegituren diseinua eta garapena / *Diseño y desarrollo de infraestructuras multicanal para la atención a la ciudadanía*
- Dokumentuei alta eman eta horiek grabatu nahiz digitalizatzea zerbitzua / *Servicio de alta, grabación y digitalización de documentos*
- Herritarrei kanal orotako arreta ez-presentziala eskaintzeko zerbitzua / *Servicio de atención no presencial omnicanal a la ciudadanía*
- Marketing digitaleko zerbitzua: sare sozialen eta eduki digitalen koordinazioa, plangintza, argitalpena, monitarizazioa eta jarraipena / *marketing digital: coordinación, planificación, publicación, monitorización y seguimiento de social media y contenidos digitales*